

*“Ama, zer izan nahiko zenuke biziko bazina?” (Mafalda)*

“Zaintza” hitzaren esanahia oso zabala da. Beraz, iturri desberdinetako definizioak motz geratzen zaizkio aztergai daukagun terminoari. Gizapediak dioenez, pertsona bat beste batez arduratu eta hari arreta jartzea eta laguntza ematea da zaintza. Baina errealitatean, denoi egokitzen al zaigu definizio hori?

Estereotipoek izugarritzko pisua dute gure egunerokotasunean. Horri helduz, azken hamarkadetan, zaintza hitza esatean, emakume baten irudia etorri ohi zaigu burura.

Emakumea, zaintzaz arduraturik dago bere bizitza osoan zehar, horregatik ohikoa dira inguruan zaindu zaitez, zain itzazu besteak... esapideak. Gizakiak jaiotzen garen momentutik zaintza jasotzen dugu: gurasoena, medikuena eta irakasleena. Poliki-poliki hazten joaten gara eta horrela haurtzaro eta nerabezaroan estereotipoak barneratzen ditugu eta emakumeoi ingurukoak eta ingurua zaintzen irakasten digute. Modu horretan, amatasunera iristean, gure guraso eta haurren zaintzaz arduratzen gara. Azkenik, helduak garenean, hain gaude ohituta ingurukoak zaintzen, ezen geure burua zaintzea edota beste pertsona bat gutaz arduratzea arrotza egiten baitzaigu.

Baina, zer izan beharko luke benetan zaintzak? Bakoitzak bere bidean zehar berarekin eramango duen ideia abstraktua, hain zuzen ere.

Denok desberdin bizitzen ditugu zaintzak ukitzen dituen esparru desberdinak. Beraz, zaintza hitzaren esanahia pertsonala dela esatera ausartuko nintzateke. Esaterako, eskolan gaizki dioan ikasleak, zaintza irakaslea hartaz arduratzea dela esango luke seguruenik; haur batek, aldiz, amaren babesa eta maitasuna; gaixo batek, ordea, familiaren babesa eta medikuren zaintza...

Honekin guztiarekin, zaintza ez dagokiola genero edota adin jakin bateko pertsona bati ulertarazi nahi nuke. Munduan kolore bezainbeste zaintza mota baitaute.

Kate Milletek zioen maitasuna emakumeen opioa zela. Baina nolatan alderatu dezake horrelako lore bitxi eta polit bat maitasunarekin? Opioa Iberiar penintsulako hegoaldean hazten den lorea da eta bertatik logurea eragiten duen droga lortzen da. Hori horrela izanik, emakumeak maitatzen duen hori zaintzen duela uler daiteke: aita, ama, haurra, txakurra... Baina, maitasun horrek lokartu egiten du geure burarekiko maitasuna. Modu horretan, gure balioak ahazten ditugu, ausardia, indarra eta autonomia.

Esaldi honek, errealitatea azaltzen du, baina emakumeok ez gara gehiago lokartuko, ez horixe, horregatik nire disertazioan erabiliko ditudan aditu guztiak, emakumezkoak izango dira. Izan ere, emakumeek filosofia egiten ere beraien lekua egin dute gizartean.

Sarritan, emakumea itzalpean geratu izan ohi da. Horren adibide da ezaguna den esapide hau : “Herrialde guztietako langileak, elkar zaitetze”. Esaldi hori, jende askok Karl Marxena dela pentsatzen duen arren, emakume batek sortu zuen, Flora Tristan filosofoak. Esapide horrek, langileak elkartzeko deialdia egiten du. Baina emakume langileek zein paper dute lanaren muduan?

Duela hamarkada gutxi ez bezala, egun emakumeek etxetik kanpora lan egiteko aukera dute. Baina hala ere, kapitalismoaren eraginez, oraindik ere alde handia dago bi generoen aldean.

Aipatzekoa da soldatan dauden aldeak, esaterako, futbolarien artean, zenbait abokaturen artean, zientzia munduan...

Baina oraindik harrigarriagoa da, kapitalismoak nola gutxiesten duen zaintza.

Esaterako, gizonezko eta emakumezko bat lan-elkarrizketa batera aurkeztuz gero, biek ikasketa berdinak dituztelarik, gizonezkoa kontratauko dute. Izan ere, gizonek fisikoki indar gehiago dutela alde batera utzirik, emakumea haurdun geratzen bada, bere burua zaintzeko eta haurra zaintzeko amatasun baja hartu beharko ditu. Ondorioz, enpresak diru pixka bat galduko du.

Horretaz gain, badaude etxean lan egiten duten emakumeak. Hauek, ez dute inolako soldatarik jasotzen. Lan erraza ematen badu ere, haur eta helduen zaintzaz arduratzea ez da erreza. Psikologikoki oso gogorra baita etxeko kontu guztietaz arduratzea, inguruan dagoen jendea gaixo dagoenean zaintzea...

Emakume hauek ere merezi dute aitortza, merezi dute soldata beste lanbide guztietakoak bezalaxe.

Silvia Federiciik ere esan berri dudana defendatu zuen “Soldataren patriarkatua” liburuan. Berak zionez, kapitalismoak negatiboki esplotatu du emakumearen lana.

Errealitate gordin hau ikusirik, zein da irtenbidea? Zaintza publiko bilakatzea?

Hainbat feministek aurreikusi zuten nik proposatu berri dudan irtenbidea, esaterako Amaia Pérez Orozcok. Zaintza publiko eta komunitario baten alde egin du azken urteotan.

Baina, ez al gara konturatzen, planteatzen dugun edozein arazok bere arriskuak dituela?

Aipatzekoa da, XI-XII mendeen artean zehar, Erdi Aroan, gremioak sortu zirela. Hauek lanbide bereko langileez osatutako talde txikiak ziren. Garai honetan, medikuntza instituzionalizatu egin zen. Ordu arte, emakumeek etxean erditzen zuen beste emakume baten laguntzat, hau da, emakumeen arteko zaintza nagusitzen zen. Erdi Aroko ospitaleak sortu zirenean, aldiz, gizonezkoak sendagileen ardura bihurtu zen erditze hauek bideratzea. Orduan hasi zen indarkeria obstetrikoa. Hau abusuzko jokabide bat da, zeinetan ama izan

behar diren emakumeei ematen zaien tratu txarragatik, emakumeak eta haur jaio berriak ondorio psikologiko eta fisiko larriak dituzten.

Ria Segato emakume filosofoa ere, iritzi honetakoa da. Haren ustez, emakumeen gorputza sarritan historikoki kontrolatua izan da.

Beraz, zaintza publikoa izanez gero, eskoletan, lanpostuetan... indarkeria jasateko aukera dago.

Beraz, zer izango litzateke arrisku hori sahiesteko irtenbidea?

Hezkuntzak, paper garrantzitsua betetzen du gizakia hezten. Hezkuntzaren bidez, gaur egun elkarte feminisistak, zenbait mediku konpaniek... hainbat hitzaldi ari dira aurrera eramaten, berain xedea emakumea bere balioaz ohartu eta gizonari horren inguruko kontzientzia piztea delarik.

Bestalde, aipatzeko da, historian zehar kezka nagusietako bat izan dela emakumeen egoera. Horregatik, zenbaitetan emakumeek beraien burua zaintzeko ekitzak egin dituzte eta protestara atera dira berain lekua aldarrikatzera:

Olatu feministetan, XVIII. mende bukaeran, berdintasuna eta hezkuntza aldarrikatu ziren. (Olympe de Gouges, Mary Wollstonecraft...). Bigarren mundu gerra (1939-45) ostean, sufragismoa aldarrikatu zuten. (Virginia Woolf). XX-XXI mendeetan aldarrikapen desberdin asko egin dira berdintasunaren alde.

Aurrerapen asko lortu diren arren: bozkatzeko eskubidea, lan egiteko aukera... oraindik asko daukagu egiteko.

Horren harira, Euskal Herriko azken greba feminista. "Zaintzak erdigunean". Zaintzaren ardura denona izan behar dela aldarrikatu zuten.

Feminismoaren alde egin duten emakumeen erreferentzia asko ditugu: Virginia Woolf, Clara Campoamor, Frida Kahlo...

Emakumearen zaintzaren kontzeptua puzzle bat balitz bezala ulertzea gustatzen zait. Aipatu berri ditudan pertsonak, puzzleko pieza bat jarri dute, bozkatzeko eskubidearen pieza, lana egiteko eskubidearen pieza, elkartzeko eskubidearen pieza...

Egia da puzzlea osatzeko pieza asko falta direla. Hori ikusirik, zergatik ez dugu "zaintza ez da soilik emakumearen lana" pieza puzzlean jartzeko konpromezua hartzen?